

TATRAS MENDIAK ZENBAIT APUNTE

Guillermo Vio

TATRAS mendiak Polonia eta Txekoslovakia (Eslovakia) arteko mugan kokatzen dira, "Carpatos" mendikatearen eskualde bat izanik. Lurralde bien arteko mendi hauen hedaduraren gehiengoak "Tatrako Parke Nazionala" (TANAP) osatzen du, Zeinak 1949. urtean arautua izan zen.

1.500 - 1.800 metro arte, basoak, zuhaizkak eta landaretza nagusiak dira eta nonnahi jatorri glaziar duten lakuak aurki ditzakegu, ehunen bat baitago. Handik gora, granito eta kareharrizko haitz biluziak altxatzen dira, tontor nagusienak 2.500 - 2.600 metrotara helduz. Mendikate honetan lurralde bi hauen tontorrik garaienak urkitzen dira.

ORIENTABIDEA

Artikulo honetan aipatzen diren ibilbide gehienak Eslovakia-koak dira, gu handik ibili ginelako eta lagungarria izan daitekelakoan "Vysoke Tatry" mapa aipatzea merezi du, eman behar dituen datu guztiak emateaz gain beste hobekuntza intersgarri bat eskaintzen digulako, bideak adierazteko erabiltzen dituen kolore ezberdinak, geroxeago mendi bideetan topatuko ditugun margo-marka berberak dira.

Inguru honek barne turismo asko erakartzen duela kontutan harturik, nahiko erreze lor daiteke aipaturiko mapa bertoko dendetan, jende askok erabiltzen duelako bai tontoretara igotzeko, bai ibilaldiak egiteko.

ABIAPUNTUAK

Eslovakia aldean hiru herriren izenak azpimarratu behar dira bereziko, Tatraska Lomnica, Stry Smokovec eta Strybske Pleso. Gu lehengoan gelditu ginen, ondo egokituta dagoen kanpin batetan. Hala ere oinarri lekutatza bata zein besteak hartzea berdina dela esan genezake, hirurak nahiko gertu daudelako eta beraien arteko garraioak onak eta ugariak direlako.

Polonia aldean, eta guk ezagutu ez bagenuen ere, Zokopane herria aipa dezakegu abiapunturik nagusia bezala, behintzat holan adierazi ziguten.


MENDI BATZUK

Aipatzen ditugun hiru irteera hauek egun bateko ibilaldiak dira, goizez irten eta iluntzean kanpinean berriro egoteko modukoak.



Argazkia: Guillermo Vio

**Rysyrako bidea:
Popradske pleso**






Foto: Jose Antonio Zugasti

Lago Strbske (pleso)

Excursión al monte Rysy (2.499 m.).

Esta es una de las ascensiones más concurridas de todos los Altos Tatras, tanto por la vertiente eslovaca, como la polaca (ya que es la cota más alta de Polonia). El punto de partida más lógico es Popradske donde hay un bonito lago con un refugio en su orilla. Nosotros salimos de Stary Smokovec (1.010 m.) por un sendero con marcas amarillas. En hora y media llegamos al lago Velicke (1.600 m.). Aquí hay un refugio donde se puede pernoctar. Desde aquí continuamos hacia el Este por un camino llamado "Tatranska magistrála" ascendiendo hasta el lago Batizovske y descendiendo posteriormente hasta Popradske (1.494 m.). Continuamos hacia el norte ascendiendo al Rysy (2.499 m.) en unas 3 horas desde aquí. Es posible pernoctar en otro refugio "Chata Rysy" situado a casi 2.500 m. en el que también sirven comidas. Las vistas desde este pico fronterizo son muy contrastadas. Mirando a la vertiente polaca se observa cercana la llanura, mientras que la vertiente sur ofrece una perspectiva mucho más rugosa.

Excursión al monte Koprovsky Stit (2.367 m.).

Tras pernoctar en el refugio del lago Popradske (1.494 m.), siguiendo la senda azul se atraviesan varios lagos, el último de los cuales, Hincovo pleso, es el mayor.

Desde aquí ascendemos en dirección oeste por una fuerte pendiente, pero por un buen camino que comunica con el valle Koprova. Siguiendo la cresta una vez alcanzado el collado (2.180 m.) alcanzamos la cima del Koprovsky stit. Esta ascensión puede realizarse en 2 horas y media. El descenso, hasta Podbanské (940 m.) lo hicimos por el valle Koprova. Después de una tormenta estos caminos eran auténticos ríos ya que la impermeabilidad del granito hace que el agua se encauce por ellos.

OTROS RECORRIDOS

Los Bajos Tatras.

Están situados de este a oeste 20 Km. al sur de los Altos Tatras. Sus formas son mucho más redondeadas y sus alturas escasamente superan los 2.000 m. Existen multitud de senderos señalizados y es posible realizar la travesía de todo su cordal principal en 5 etapas. Hay varios refugios intermedios. Hay quien realiza en verano esta travesía en bicicleta de montaña y en otras estaciones haciendo esquí de travesía.

Sendero de largo recorrido que sigue la frontera checo - polaca.

Entre los muchos caminos señalizados que existen en este país, éste que os

comentamos goza de un especial interés por parte de los montañeros checos. Aunque nosotros no caminamos por él, nos lo aconsejaron en varias ocasiones. Este sendero comienza en los Altos Tatras y se dirige hacia el oeste recorriendo la cresta fronteriza entre altitudes de 1.500 y 2.300 m. Para obtener más información, adquirir los mapas nº 13, 19 y 20 de edición turística (escala 1: 50.000) donde vienen señalizados en colores los recorridos de éstas randonees.

NOTAS FINALES

El transporte por el interior del país, no presenta ningún problema. bien en autobús o tren hay gran cantidad de servicios públicos a precios más que asequibles.

Como divisa es interesante llevar dólares, o mejor aún marcos.

Es aconsejable cambiar oficialmente en bancos, pues en el mercado negro no se obtienen hoy en día grandes gangas y hay quien ofrece billetes falsos.

Adquirir los mapas en librerías de alguna ciudad grande, pues a veces es difícil conseguirlos en las zonas de excursión.

El mapa de los Altos Tatras es el nº 21 (Vysoké Tatry. Escala 1: 50.000) Edición turística.

Excursión realizada en agosto de 1991. ■

Lomnický Stit 2.632 m.


Tatranska Lomnica herriaren gain gainean dago mendi hau eta heldu bezain laster bere haitz zorrotz eta ikusgarriak gure mendigoizale gogoak berpiztudo dizkigu.

Bertaraino igotzeko Tatranska (860 metroan) herriko plazatik irteten den teleferikoa hartzea gomendagarria da ordutegia gehiegi estutu gabe goraino igo ahal izateko.

Eslobakia eta Txekoslovakia osoko ingurune turistikoko handienetarikoa batetan gaudela bergogoratu, goitzo merezi du telesferikoa hartzea, bestela ilada luzea itxaron beharko dugu. Hala ere, holan gertatzen bazaizue, Tatrasko Parke Naziona-



Lomnický Stiteraino bidea. Atzean Skalnaté Pleso



Lomnický Stiteraino bideko katedun paso bat

laren museoa ikusteko aukera izango duzue, handik nahiko urbil baitago.

Behin teleferikoa igo ezker "Skalnate pleso" geltokian, 1.751 metroan geldituko gara eta hemendik argi ta garbi ikusten da gure mendigoizale helburua eta bere oinarrian dagoen leporainoko bidea. Aldizka bedarra, aldizka harrien artean, zigzag eginez, zailtasunik gabe Lomniky stit eta Lomnike gaintxoaren (2.190) arteko atekara iritsiko gara.

Lepo honetatik hasiera baten nahiko ikusgarria den aldi bat irteten da, zeinak apurka apurka harrietatik altuera hartzen duen. Geroxeago bidexka hau galtzen da haitzen artean eta zenbait pasabidetan eskuak erabili behar izando ditugu malda xut eta harkaitzua trepatzeko.

Tontorrerantz urbiltzen garen heinean pasabide hauek "zailatxoagoak" bihurtzen dira, baina halakoetan kate lagungarri batzuek aurkituko ditugu zailtasunak erreztan eta zihurtasuna emanez.

Tontorratik, Txekoslovakiaiko bigarren gailur honetatik ikuspegia zabala da eta guretzat oso ezezaguna diren tontor askoren artean Rysy (2.499), Vichodna Vysoka (2.428) eta Gerlachovsky (2.655) gailentzen dira.

Vichodna Vysoka 2.428 m.

Mendi honetara igotzeko Stary Smokovec herritik irtengo gara, 1.010 metroetatik, eta eguneko lehengo aldapa gaintzitzeko Hrebienok edo Bilikova txaleteraino (1.280 m.) igotzen den funikularra har daiteke. Funikularrik irtetzean oso ondo markatuta eta oso nabaria den bide bat jarraituko dugu Hrebienok - eko basoa zeharkatuz, Velicke lakuraino heldu arte (1.663 m.)

Honaino segitu dugun bidea oso erabilia da eta "Tatranska Magistrala" bidearen zati bat da. Bide hau Tatrasko zehar doa, erdiko altuera batetan, tontorretara igo barik, "randonnee" edo "G.R." moduko bat. Bere osotasunean egiteko marra gorriak jarraitu behar dira eta noski, lehen aipatutako mapan, "Vysoke Tatry"-n bide hau gorri adierazita dago.

Velicke lakuaren urbazterrean Sliezky aterpea dago eta hemendik Txekoslovakia-ko, eta era berean mendikateko tontorretatik altuenarantz abia daiteke, Gerlachovsky - rantz hain zuzen ere. dirudienez, eta sentitzen dut hain informazio eskasa ematea, igo ahal izateko mendigoizale talde bateko kidea zarela frogatu behar duzu berton, bestela gura baten laguntza behar beharrezkoa da. dirudienez igoera zaila da.

Oporretan geundela kontutan harturik (zera de materialik gabe eta burua zailtasun gehiegietan sartzeko gogo askorik gabe) lakuaren eskerraldeko urbazterretik, gure eskumatik doan aldaia jarraitzen dugu, pixkanaka pixkanaka igoz eta hemen ere bidea malkartsuagoa eta latzagoa bihurtzen den pasabideetan lagungarriak diren kateak aurkituko ditugu.

Inolako ezusterik gabe Vichodna Vysokako tontorra lortuko dugu eta oso urbil dagoen Gerlachovskyk erakarriko dizkigu begiradak.

Rysy 2.499 m.

Mendi honek muga egiten du Eslobakia eta Poloniaren artean, Poloniako tontorretarik garaiena izanik. Eslobakia aldetik igoera, guk egindakoa Strbske Pleso (1.335 metroan) hasten da eta berton lehen aipatu dugun "Magistrala" bidearen zati berri bati ekingo diogu Popradske Pleso (laku) glaziareraino heldu arte. (1.494 m.)

Handik Hincov ibaiaren ondok jarraituko dugu Pod Rysy aterperaino heldu arte. Aterpe hau 2.250 metroan dago kokatuta eta 13 litera du. Mendikate honetan eta Tatrasko Parke Nazionalaren esparruan, aterpe nahikotxoak daude, hala ere udan garaian, dirudienez nahiko zaila izaten da litera librerik aurkitzea.

Aterpe honetatik harrizta batetik gailurrera helduko gara, zeinak tripode handi bat duen. Datu historiko bat mendi honi buruz, ez dakigu Lenin oso mendigoizale trebea izango zen ala ez, baina tontor honetan 1913 urtean bota zuen hitzaldi bat.

Mendi honetan, beste bietan esan dugun legez, bideko pasabide "zailatxoetan" kateak lagunduko ditute.

ZENBAIT DATU OROKORRA

Ibilaldi eta igoera hauek udan egin genituen, Abuztuan hain zuzen, eta bideak oso nabariak ziren, ondo seinalaturik ... ez zegoen galbide askorik. Garai honetan ez da inolako material berezirik behar, denok ditugun "treking"eko botak eta kitto.

Lekutik kanpo egon daiteke aipatzea, esandako guzti honek ez duela balio eguraldia txarragotzen denerako, ertialdeko Europako negua oso gogorra da eta Azarotik Ekaina arte ederra eta izotza nagusiak bihurtzen dira mendiotan, hain zuzen eskiatzeko leku ugari daude.

BESTE IBILALDI BATZUEN AIPAMENA

Gure tontor nahiak asetu ondoren "ohizko" turismoan ihardun genuen, hala ere, jasotan beste mendi batzuei buruzko zenbait datu aipatuko dugu, hala nola:

Slavkovsky Stit 2.452 m.: Stary Smokovec lehen aipatu dugun funikularra hartzen da Bilikova txaleteraino eta han bide "urdina" (Visoka Tatry mapan urdinez adierazita) jarraitzen da. Egun bateko irteera.

Giewont 1909 m.: Polonia aldean eta Zakopane herria da abiapuntua. Strazyska funikularra hartu eta jarraitu bide gorria. Egun bateko ibilaldia ere.

Kasprowy Wierch 1985 m.: Tontorrean jatetxe bat dago eta bertaraino Zakopane-tik funikularrez igotzen dira turista taldeak. Ibiliz Piea Stawow eta Morskie lakutik igotzen da.

Artikulo honetan azaldutako ibilaldi guztiak nahiko errezak izan arren, ez gara ingainatu behar, tratasen zailtasun handiko norma eta mendiak daude hurbil daitezkeen gutzientzat. ■